

Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

Inklusioaren eta gizarteratzearen indize sintetikoa:

politika publikoak
diseinatzeko tresna

17.

Inklusioaren eta gizarteratzearen indize sintetikoa: politika publikoak diseinatzeko tresna

Jose Antonio—Oleaga Páramo

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak, Begirune Fundazioarekin lankidetzan, inklusioaren eta gizarteratzearen indize sintetikoa egin du, **BI3 (Basque Inclusion Integration Index)** izenekoak. Indize hori berdintasun, **Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo** espezifikoak lau urtean behin egiten duen etorkin atzeritarrei buruzko inkestak (**EABI**) emandako datuetan oinarritzen da. Orain arte hiru galdeketa egin dira, 2010, 2014 eta 2018 urteetan. Azken urte horretako datuetan oinarritzen da BI3 indizea.

Zer da indize sintetiko bat?

Indize sintetikoa **konstruktua metodologikoa da, eta gizarte-zientzietan erabiltzen da. Gai jakin batekin lotutako adierazle askoren informazioa balio bakar batean laburbiltzeko balio du**; horrela, pertsona bakoitza (kasua, behaketa) zenbakizko continuum batean kokatzen da. Pertsona bakoitzak continuum horretan duen kokapena (balio altuagoa edo baxuagoa) indizea osatzen duten adierazleetan agertzen diren erantzunen edo balioen arabera izango da.

Ikuspegi metodologikoari dagokionez, indize bat hainbat modutan egin daiteke ikerketa sozial aplikatuan; baina **indize sintetikoaren terminoa literatura zientifikoan erabili ohi da**, bigarren mailako **analisi faktorialaren** bidez lortutakoa izendatzeko (osagai nagusien bi analisi faktorialen sekuentzia bat).

Zer neurtzen du inklusioaren eta gizarteratzearen indize sintetikoak?

Inklusioaren eta gizarteratzearen **indize sintetikoak EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratze-maila neurtzen du**. Eta gizarteratzea diogunean, beste latitude batzuetako pertsonen etorrerarekin abian jartzen den prozesuari buruz ari gara. Prozesu horren ondorioz, zenbait ekintza abian jartzen dira: batetik, etorkinak toki jakin batean finkatzen direnean, etorkinen eta autoktonoen arteko interakzioa gertatzen da; bestetik, etorkinek harrera-gizarteko ohituretara eta erakundeetara moldatu behar dute; eta, azkenik, aldaketa sozial batzuk gertatzen dira, eta aldaketa horiek etorkinak eta autoktonoak inplikatzen dituzte, nahiz eta, agian, ez izan maila parekatuan (**Schierup eta Alund, 1986**).

Integrazio terminoak honako hau esan nahi du, RAEren definizioaren arabera: zatiei dagokienez, osotasun baten parte bihurtzea. **Gure ustez, gizarteratzeak prozesu bat adierazten du, eta, prozesu horren ondorioz, migratzaileek eta euskaldunek harremanak dituzte eta elkarri eragiten diote berdintasun-maila batean** (maila handiagoan edo txikiagoan), **osotasun bat eratzeko**: euskal gizarte askotarikoa eta kulturartekoa, elkarrekintzaren prozesu dialektikoaren emaitza.

Azken finean, gure indizeak puntuazio bat ematen du, eta pertsona bakoitza zenbakizko continuum batean kokatzen du. Continuum horrek gizarteratze-maila handiagoa (indizean balio altuagoa) edo txikiagoa (indizean balio baxuagoa) adierazten du.

Nola lortzen da indize sintetikoa? Nondik dator?

Inklusioaren eta gizarteratzearen indize sintetikoa ABEIk ematen dituen datuetatik lortzen da. Inkesta horrek **EAE**n bizi diren atzerritarren gizarte-errealitatearen 500 adierazle baino gehiago eskaintzen ditu. **Adierazle pertsonalak eta familiarrak dira**, eta hainbat alderdi biltzen dituzte: okupazio-egoera, egoera ekonomikoa, osasun-arazoak, gizarte-arazoak, arazo ekonomikoak, jatorria eta Euskadira iristea, jatorriarekiko harremana, EAEko hezkuntza-esperientzia, hizkuntzak jakitea, lan-esperientzia EAEn, gizarteratzea, EAerekin identifikatzea eta etorkizuneko proiektuak.

Jarraian, lau esparru teoriko edo kontzeptualetako 47 adierazle aukeratu ditugu:

- **Enpleguaren alderdia:** atzerritar jatorriko pertsonen laneratzearen 15 adierazlek osatzen dute.
- **Gizarte-ongizatearen alderdia:** gizarte-ongizatearen integrazioari buruzko 15 adierazlek osatzen dute.
- **Gizarte-harremanen alderdia:** interakzio sozialaren integrazioari buruzko 12 adierazlek osatzen dute.
- **Herritartasunaren alderdia:** herritartasun osoaren erabileraren integrazioari buruzko 5 adierazlek osatzen dute.

Pertsona bakoitzak 47 adierazleei emandako erantzunetatik ateratako informazio guztia adierazle edo balio bakar batean laburbiltzen dugu: inklusioaren eta gizarteratzearen indize sintetikoari dagokion adierazlean.

Gizarteratzea dimentsio bakarreko prozesua al da?

Ez, **gizarteratzea dimentsio anitzeko prozesua da.**

Lehenago esan dugun bezala, **lau azterketa-esparru teoriko edo kontzeptual** hartu ditugu abiapuntutzat: enplegua, gizarte-ongizatea, gizarte-harremanak eta herritartasuna. Datu horien tratamendu estatistikoari esker, esparru horiek berretsi edo azterketa-esparru berriak ezar ditzakegu. **Osagai nagusien bi analisi faktorial** segidan ezarriz egiten dugu. Lehenengoak gizarteratzearen oinarri diren **dimentsioak** zehazten ditu; bigarrenak, berriz, **dimentsio bakoitzak gizarteratzean duen garrantzi erlatiboa ezartzen du.**

Hala, agerian geratzen da **atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratzea alderdi anitzekoa dela.** Gure datuen arabera, oinarriko zazpi dimentsioak osatzen dute: enplegurako sarbideak eta baldintzek; gizarte-ongizatearen mailak; norbakoaren eta familia-unitateen egoera ekonomikoak; identitatearen alderdiak; herritartasunarekin zerikusia duen alderdiak; komunitate-harremanen eta parte-hartzearen alderdiak; eta etorkizuneko proiektuekin zerikusia duen alderdiak.

Horrenbestez, gure ustez, migratzaile bat (baita autoktonoa ere) neurri handiagoan edo txikiagoan gizarteratzea honako gai hauen arabera izango da: komunitatearen eraikuntzan (lana, ikasketak, etab.) laguntzen duen neurria, bizi-baldintza duinak izatea (ongizatea), autonomia izatea (diru-sarrerak), inguruarekiko konpromisoa hartzea (parte-hartzea), herritar gisa dituen eskubideez gozatzea (herritartasuna), komunitatearen parte sentitzea (identitatea) eta bizi-proiektu bat izatea (etorkizuneko proiektuak).

Garrantzi bera al dute zazpi dimentsioek gizarteratzean?

Ez, badira dimentsio garrantzitsuagoak, gizarteratze-prozesuan pisu handiagoa dutenak. Hau da, **alderdi batzuek eragin handiagoa dute edo gehiago zehazten dute etorkinek gizarteratze-prozesuan duten posizioa.**

Hala, analisi estatistikoak berak honako hau adierazten digu: 1) enpleguaren alderdiak % 29,95eko pisua du gizarteratzearen indize sintetikoak kalkulaterako orduan; 2) ongizatearen alderdiak, % 16,31; 3) alderdiak ekonomikoak, % 14,37; 4) identitateak, % 12,48; 5) herritartasunak, % 11,06; 6) komunitateak, % 10,12; eta 7) etorkizunerako proiektuen alderdiak, % 5,71.

Atzerritar jatorriko pertsona guztiek erritmo bera jarraitzen al dute gizarteratze-prozesuan?

Ez, inola ere ez.

Gizarteratze-prozesua segmentatuta dago erabat. Ezarritako alderdien zazpi indize partzialak eta gizarteratzearen indize sintetikoak osotasunean aztertuz gero, agerian geratzen da pertsona (eta talde edo kategoria sozial) batzuk gizarteratze-prozesuan fase goiztiarrago batean daudela, eta beste batzuk fase aurreratuago batean.

Alegia, gizarteratze-prozesuan fase aurreratuago batean dauden pertsonak enplegua eta lan-baldintza onak dituzte, bizi-baldintza material onak, diru-sarrerara duinak, euskal identitate-sentimendua dute, herritar gisa eskubideak dituzte, parte-hartze sozial handia dute, eta etorkizuneko proiektuak Euskal Herrian dituzte; eta, aldiz, fase goiztiar batean dauden pertsonak ez dute enplegurik, bizi-baldintza txarrak dituzte, ez dute diru-sarrerarik, ez dute Euskal Herriarekiko atxikimendurik, herritar gisa ez dute eskubiderik, ez dute parte hartzeko gaitasunik, eta ez dute etorkizuneko proiektu argirik.

Datuen arabera, beraz, segmentazioa dago gizarteratze-prozesuan.


Zer aldagaik azaltzen dute segmentazioa?

Gizarteratze-prozesuaren segmentazioa aldagai soziodemografiko askoren ondorioa da, hala nola adina, **nazionalitatea, jatorria, egoera zibila, gutxiengo erlijiosoa, ikasketa-maila, lanbidea, jarduera ekonomikoa**, Espainiako estatuan daraman denbora, erroldatuta daraman denbora edo egoera administratiboa.

Gizarteratzearen indize sintetikoa bezalako tresna batek, aldagai horien arabera, aukera ematen digu pertsonen eta pertsona-taldeen artean dauden aldeak hautemateko. Hona hemen indizearen erabilgarritasuna adierazten duen adibide bat. 1. grafikoa atzeritar jatorriko biztanleak jaioterriaren eta generoaren arabera segmentatzen ditu. Gizarteratze-prozesuan fase goiztiarrenetan dauden pertsona-taldeak ezkerretik daude, eta fase aurreratuagoan daudenak, eskuinaldean.

Posizio goiztiarrenetan, Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeak (EAG), Magrebeko emakumeak (EMG), Senegalgo emakumeak (ESG), Magrebeko gizonak (GMG) eta Afrikako gainerako herrialdeetako gizonak (GGA) daude. Eta fase aurreratuagoetan, Argentina, Txile, Uruguai (GAG) eta EBko gizonak (GEB); Argentina, Txile eta Uruguaiako emakumeak (EAG); Latinoamerikako gainerako herrialdeetako gizonak (GGL), Kolonbiako emakumeak (EKB), Kolonbiako gizonak (GKB), Brasilgo gizonak (GBR), etab.

Gizarteratze-prozesuaren segmentazioa generoaren eta jatorriaren arabera



Asko al dira gizarteratze-prozesuan fase goiztiarrean dauden pertsonak?

Bai, kopurua handia da.

Ikerketaren datuak Euskadin bizi diren 16 urtetik gorako atzerritarren multzora estrapolatuz gero, datu kezkarri bat ikus daiteke: 26.416 pertsona daude gizarteratze-fase oso goiztiarrean, eta 17.407 fase goiztiarrean. Guztira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako guztien % 26,5.

Ba al dago gizarteratze-prozesuaren segmentazioari lotutako pobrezia- eta bazterketa-egoerarik?

Bai, pobrezia- eta bazterketa-egoeren eta gizarteratze-fase goiztiarren arteko loturaren ebidentzia estatistikoa dago.

Gizarteratze-fase oso goiztiarrean dauden pertsonen zailtasun ekonomiko handiagoak dituzte elikadura-, jantzi-, oinetako- edo etxebizitza-beharrak betetzeko, gabezia-egoera larri gehiago izaten dituzte oinarriko alderdiei dagokienez, haien etxebizitzaren egoera ez da duina, eta pobrezian bizi dira. Beste muturrean, gizarteratze-fase aurreratuan dauden gehienek diote ez dutela zailtasun ekonomikorik, ez dutela gabezia-egoera larririk, maila egokiko etxebizitza batean bizi direla, eta egoera pertsonal oparoa edo erosoak dutela edo, gutxienez, *moldatzen direla*.

Gizarteratzearen erritmoa antzekoa al da alderdi guztietan?

Ez, gizarteratzearen erritmoa asimetrikoa da ezarritako zazpi alderdietan.

Hau da, **pertsona bera gizarteratze-fase desberdinetan egon daiteke aztertutako zazpi alderdietako bakoitzean**. Gizarteratzea osatzen duten zazpi alderdien garapen-erritmoek eragina dute pertsona bakoitzaren gizarteratzearen une edo faseetan, bai alderdietan bai osotasunean.

Atzerritar jatorriko biztanleak artikulu honen hasieran ezarritako zazpi alderdietan duten posizioaren arabera aztertuz gero, bost pertsona-multzo egin ditzakegu. Bost multzo horiek erritmo desberdinak dituzte gizarteratzearen indize partzialen posizioetan. Alegia, **atzerritarren gizarteratzea ez da ez simetrikoa ez orekatua aztertutako zazpi alderdietan**. Eta agian ez du zertan izan.

Talde bat aztertutako zazpi alderdietako gehienetan gizarteratze-maila erlatibo onenetan dauden pertsonak osatzen dute, eta **integratuta alderdi guztietan** izena eman diogu. Talde hori osatzen duten pertsonak dira gizarteratze sinbolikoan, identitatearen alderdian, herritartasunean eta komunitateko prozesuetan gehien aurreratu dutenak, eta, horrez gain, euskal gizartean ikusten dute beren etorkizuna. Jakina, lanari eta ongizate materialari dagokienez, egoera onean daude.

Beste talde batean asimetria nabarmena da. Alde batetik, integrazio materialaren (lana, ongizatea, maila sozioekonomikoa) eta identitate-integrazioaren (harremanak eta euskal gizarteari buruz duen iruditeria) alderdietan maila aurreratuan daude; herritartasun eta komunitatearen alderdietan, aldiz, maila goiztiarrean daude. Talde horri **oso ondo doakit, neure erara** deitu diogu.

Hirugarren talde baten posizioek adierazten dute defizit handia dutela laneratzearen alorrean. Hori dela eta, talde horri **lana izan ezik, ez doakit gaizki** izena eman diogu. Talde horretako kideak fase aurreratueta daude zenbait alderditan; esaterako, ongizatean, identitateari dagokion integrazioan (hala ere, hobetzeko aukera handia dute), komunitatean eta etorkizunerako dituzten proiektuetan. Horrek erakusten du aurrerapen handiak egin dituztela gizarteratzearen sentimendu subjektiboan; hau da, euskal gizartearen parte sentitzen dira, gizarte horretan gustura sentitzen dira, eta parte hartu nahi dute gizarte horren etorkizunaren bilakaeran. Baina laneratze-maila eskasak eragin zuzena du integrazio sozioekonomikoan, eta hori ere nabarmen hobetu daitekeen alderdi bat da.

Laugarren taldeko kideen balioek adierazten dute asimetria handiak dituztela gizarteratze-prozesuan. Laugarren talde horri **nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua** izena jarri diogu. Talde horrek aurrerapen nabarmenak erakusten ditu alderdi materialetan, bereziki laneratzean eta ongizatean, baina ez dute maila ekonomiko sendoa. Hala ere, beste alderdi batzuetan (identitatean, herritartasunean, komunitatean eta etorkizuneko proiektuetan) hobetzeko duten marjina askoz ere handiagoa da.

Azkenik, **gaizki, oso gogorra izaten ari da** taldea dago. Talde horretan dauden kideek egoera pertsonal eta familiar oso latzak dituzte; izan ere, oso maila txarrean daude integrazio materialaren, identitatearen eta herritar gisa dituzten eskubideen alderdietan. Komunitatearen eta etorkizuneko proiektuen alderdietan soilik ageri dira posizio itxaropentsuetan.

Integrazioa asimetrikoa bada alderdiei dagokienez, horiek independenteak dira ala sistema bat osatzen dute?

Gizarteratze-prozesuaren **zazpi alderdiek sistema bat osatzen dute, baina horrek ez du esan nahi guztiek elkarren artean lotura estua dutenik**. Batzuek harreman handiagoa dute elkarren artean, baina beste batzuk independenteak dira.

Zazpi alderdien artean lotura estua balego eta elkarren artean egokitu beharko balira edo oreka bat izan beharko balute, alderdi bakar batez ari garela pentsatzen hasiko ginatke, eta datuek erakusten digute hori ez dela horrela: **atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratze-prozesua dimentsio anitzekoa da, dimentsio horiek elkarren artean lotzen dira, eta sistema bat osatzen dute, baina guztiek ez dute elkarren artean harreman estua**.

Adibidez, laneratzearen alderdia ongizatearen alderdiarekin, alderdi ekonomikoarekin eta identitatearen alderdiarekin lotuta dago (lotura ertaina/txikia, baina esanguratsua); ongizatearen alderdiak alderdi ekonomikoarekin lotura du; alderdi ekonomikoak identitatearen eta herritartasunaren alderdiekin; eta identitatearen alderdiak, espero zitekeen bezala, alderdi komunitarioarekin.

Gizarteratze-prozesuak azken emaitza bera izan behar al du?

Ez, pertsona guztiek ez dute nahi edo ez dute zertan iritsi gizarteratze-egoera berera: nahiz eta gutxieneko batzuk ezar daitezkeen, alderdietako garapen desberdinek gizarteratze-modu ugari sortzen dituzte. **Ezin dugu gizarteratzeko modu bakar bat ezarri; atzerritarrek gizarteratzeko modu asko izan ditzakete;** EAEko edo Espainiako herritarrekin gertatzen den bezala.

Datuek adierazten digute, prozesuaren amaieran nolabaiteko oreka lortzeko joera dagoen arren, pertsona eta/edo gizarte-talde berak posizio asimetrikoak izan ditzakeela gizarteratze-prozesu globala eratzen duten alderdietan. Gizarteratzea osatzen duten alderdien arteko elkarrekintzek ez dute haien arteko orekarik behar. Badirudi ez dela beharrezkoa.

Datuen arabera, ez dago gizarteratzearen azken emaitza bakar bat. Hau da, prozesu guztiek, **beren bideak asimetrikoak direla kontuan izanda, ez dute ezinbestean gizarteratzearen emaitza berean amaitu behar.**

Bat al datoz gizarteratze-indizeak ematen duen esleipena eta pertsonen sentimendu subjektiboa?

Ez zehazki.

Indize sintetikoko puntuazioaren arabera, pertsona bati esleitzen diogun gizarteratze-fasea eta pertsona horrek euskal gizartean duen integrazio-sentimendu subjektiboa erlazionatzen ditugunean, esleitu diogun fasea edozein dela ere, gehienek nahiko integratuta sentitzen direla diote. Dena den, egia da integratutago sentitzen direla gizarteratze-fase aurreratu batean kokatzen ditugun pertsonak, gure kalkuluen arabera.

Ateratako ebidentziek adierazten digute gizarteratzea era askotara uler daitezkeela, eta prozesuak asimetrikoak direla ibilbideari eta erritmoari dagokienez; ez dute zertan orekatu gizarteratze-emaiza bakar batean. **Agian, pentsatu behar dugu gizarteratze-emaiza anitzak egon daitezkeela, pertsona eta/edo talde atzerritarren arabera desberdinak izan daitezkeela, eta ez dutela zertan multzoen arteko oreka behar.** Adibidez, pertsona edo pertsona-talde batzuek ez dute posizio aurreratua izan behar integrazio komunitarioan edo identitate-integrazioan gizartean erabat integratuta sentitzeko; gauza bera gertatzen da alderdi materialean nolabaiteko posizioa lortu ondoren, alderdi komunitarioa, identitatearen alderdia edo herritartasunaren alderdia lehenesten dituzten talde edo pertsonekin.

Zer ondorio atera ditzakegu biz inklusioaren eta gizarteratzearen indize sintetikoaz?

Gizarteratze-indize sintetikoarekin lortutako emaitzek honako hau erakusten digute atzerritarren gizarteratzeari buruz:

- **Dimentsio anitzeko prozesua da.** Hau da, oinarrizko hainbat alderdik osatzen dute: enplegurako sarbideak eta baldintzak; pertsonen gizarte-ongizatearen mailak; egoera sozialak eta ekonomikoak; identitatearen alderdiak; herritartasunarekin lotutako alderdiek; komunitate-harremanen eta -partaidetzaren alderdiak; eta etorkizuneko proiektuekin lotutako gaiak.
- **Segmentatutako prozesua da.** Hau da, prozesu pertsonalak eta/edo talde-prozesu (kategoria sozialak) desberdinak dira, eta erritmo desberdinak dituzte.
- **Prozesu asimetrikoa da.** Hau da, pertsona eta/edo pertsona-talde bera integrazio-fase desberdinetan egon daiteke ezarritako alderdi bakoitzean.
- **Prozesu anizkuna da.** Hau da, gizarteratze-prozesua bere osotasunean ez da ibilbide unibokoa, ez du emaitza edo gizarte-egoera berdinerara eramaten. Gizarteratzeko modu eta maila desberdinak egon daitezke.

Agian, **gizarteratzearen teoria bere ezaugarri nagusiak kontuan hartuta planteatu beharko genuke; alegia, alderdi anitzeko osaera, taldeen arteko segmentazioa, taldeen barne-asimetria dimentsionala eta integrazio anizkuna.**

Azken batean, autoktonoen artean euskaldun izateko eta sentitzeko moduak askotarikoak dira. Euskal gizartea askotarikoa zen etorkinak iritsi aurretik; gaur egun, oraindik eta gehiago da, eta are gehiago izango da atzerritar jatorriko pertsonak eta haien ondorengo euskaldunak erabat integratzen direnean. Horrek guztiak duela hamarkada batzuk aita **Joxe Migel Barandiaranek** egindako definiziora garamatza; izan ere, elkarrizketa batean euskaldun izatea zer den galdetu zioten (Zer da euskaldun izatea?).

Humanista eta zientzialariaren erantzunaren arabera, euskalduna izatea da Euskal Herrian bizitzea, bertan lan egitea, bertan ikastea, bertan haztea, lur hori maitatzea, euskara hitz egitea, euskara maitatzea, tradizio, ohitura eta bizimodu batzuk partekatzea, seme-alabak bertan izatea, gizarte-proiektu komun baten parte izatea... **Era askotara izan eta senti daiteke bat euskaldun.**

Autoktonoen artean euskaldun izateko eta sentitzeko modu asko dauden bezala, **gure ustez, askotarikoak izan daitezke atzerritarrak gizarteratzeko azken emaitzak ere.**

